

EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI AL DUZU?

URUMEAKO
Kronika

2017/04/24



Idatzi bilaketa hitza(k)

Bilatu

HERNANI

GOIZUETA

ARANO

EREÑOTZU

ASTIGARRAGA

Hemeroteka

Multimedia

Publizitatea

Bazkide egin

KOMUNITATEA



Gaur egun eremua nola dagoen eta aldeketekin nola geratuko litzatekeen.

[albisteak](#)//ASTIGARRAGAKO EH BILDU - PRENTSA OHARRA

Kultur Etxea eta inguruak berriztatzeko proposamena ezagutarazi du EH Bilduk

EH Bilduren esanetan «Jabetza adostasunez eskuratu eta gero proposamenaren oinarri nagusia herritarren parte hartzea da, herri galdeketa barne. Lorategiaren azpian **Sagardoetxea** kokatzea eta eraikina gazte, emakume edo garapen sozioekonomikora bideratzea proposatzen dugu».

ASTIGARRAGA

2017/04/08 00:00 Larunbata

EH Bilduk hilabete hauetan egungo Kultur Etxea eta inguruko lorategiak jomuga dituen proposamena landu du



PDF

HERNANI

Apirilak 24

ESKELAK

HERNANI

*Santiago
Armendariz
Dominguez*



Agenda Bateratua

ASTIGARRAGA

19:30 Los últimos días de
Adelaida García Morales
LITERATUR SOLASALDIA
Kultur etxea.

//Erabiltzaileak

Puri-Purian

hainbat herritar, udal teknikari eta eragileen kolaborazioarekin batera. «2019ko 2. seihilekoan, Kultur Etxe berriak martxan egon beharko du eta EAJren utzi kerriaren aurrean, EH Bilduk hartu zuen hau herri-tarrekin diseinatzeko lekukoa. Egindako bilera horietan, gaur egungo Kultur Etxearen inguruko zalantzak eta kezkak mahai gaineratu ziren eta proposamena landu dugu».

Adostasuna lortu

Bilduren esanetan lehen urratsa, eraikinaren eta lursailen jabea den Fundazioarekin, jabetza publikoa eskuratzeko negoziaketekin abiatzea litzateke. «Helburua, Fundazioa eta udalaren artean adostasuna lortzea da». EH Bilduk, eremu hau guztia herriaren garapenerako eta herritarrentzako estrategikoa dela uste duenez, jabetza eskuratzeko ezinbestekoa da.

Hala ere, proposamena bi lan lerrotan banatu du EH Bilduk; batetik, lurrak edo berdegunea eta bestetik, eraikina. «Lan lerro hauek batera edo erritmo desberdinetan joan ahalko lirateke». Horregatik, adostasuna lortzeko, jabetza modu desberdinetara irekia dago EH Bildu. «Lurren kasuan, jabetza osoa Udalak eskuratzeko litzateke. Eraikinarekin aldiz, jabetza lortu ezean, juridikoki ondo zehaztutako erabilera eskubide bat bideratzea egoki ikusten da, Fundazioak helburutzat dituen behar sozialak bermatuz».

Adostasuna herritarrek berrestea

Behin adostasuna lortuta eta Udalak adostasun hau onartu aurretik, dokumentua 30 egunez jendaurrean jartzeaz gain, egun hauetan honen inguruko informazioa zabalduko litzateke EH Bilduren proposamenean. «Tarte horretan, 16 urtetik gorako herritarren %5ak aurka alegatuko balu, adostasuna berretsi edo ezeztatzen herri galdeketa antolatzea proposatzen dugu».

Galdeketa eginez gero eta %30ak baino gehiagok parte-hartuko balu, emaitza loteslea izatea proposatzen du EH Bilduk. «Hala izango ez balitz, Udalak izango luke azken erabakia. Galdeketa ezetza gailenduz gero, adostasun berri bat lortzeko saiakera egin beharko litzateke».

Lurrekin zer egin diseinatu

Apirilaren 8an denok ... (1)

'Nahi al duzu ... (5)

Gida komertziala



Komertzio bat bilatu

Bilatu

Iragarki merkeak

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.

Telefonoa: 616886660

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

+ Ikusi

Tweets por @KronikaNet



EH Bilduk behin-betiko Sagardoetxe osoa, gaur egungo Kultur Etxea eta Anuska auzoaren artean dagoen berdegunearen azpian kokatzea proposatzen du, sagastia, leku berean mantenduz.

«Proposamen honekin, berdegunea bere horretan mantendu edo hobetu ahalko litzateke aisialdirako erabilera haundituz. Aurreko legealdian Sagardoetxeari buruz egindako diagnostiko bat jarraituta, lur azpiko 1.200m²ko Sagardoetxea bermatu ahalko litzateke. Proposamen honekin herritarrek hainbeste estimatzen duten berdegunea errespetatu edo indartuko litzateke». Beraz, hurrengo urratsa, **Sagardoetxea** eta berdegunea herritarrekin diseinatu eta proiektu batean jasotzea litzateke. Behin proiektua eskuetan izanda, hurrengo erronka gainontzeko erakunde publikoetatik finantziazioa eskuratzea litzateke. EH Bilduk, 2.000.000 euroko kostua aurreikusten dio berdegunea eta Sagardoetxe berria egiteari eta beraz, Udalak bakarrik ezingo luke asumitu hori guztia. «Horregatik, ezinbestekoa litzateke, gutxienez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kolaborazio ekonomikoa eskuratzea».

Herri galdeketa egin lau aukerarekin

Behin proiektua definituta eta gainontzeko erakundeen konpromiso ekonomikoa zehaztuta, EH Bilduk proiektua berresteko herri-galdeketa egitea ezinbestekoa dela uste du. «Galdeketa horretan herritarrek gutxienez 4 aukera izango lituzkete: Alternatiba 0 (dagoen bezala uztea). Berdegunea bakarrik (berdegunearen birmoldaketa babestea, Sagardoetxea ez). Erdibideko proiektua (Sagardoetxea baina berdegunea berdin mantenduaz). Proiektu osoa (**Sagardoetxea** eta berdegunearen birmoldaketa babestea)». %30 baino gehiagoko parte-hartzearekin, emaitza loteslea izatea proposatzen du EH Bilduk. Parte-hartze maila hori eskuratu ezean, Udalaren esku egongo litzateke azken erabakia.

Eraikinaren erabilera erabaki beharko litzateke

Behin eraikinaren jabetza modua onartuta, EH Bilduk herritar eta eragile guztiei zabalduetako parte-hartze prozesua irekitzea proposatzen du eraikinaren erabilera guztion artean zehazteko. «Gure ustez erabilera soziala



gui

Marian

G GEURIA



Sanjurjo
militari
gaitzet

EUSKA




Gaur

Aemet eskaintako datuak

(emakumeak, gazteak, aisialdia, garapen sozioekonomi-koa) behar luke baina hori ere jendearen partehartzeak erabaki beharko luke beste preozsuekin bezala».



Txiokatu



Inprimitu

IRUZKINAK

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarri bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)

Azken argazkiak



Korrika Ttikia 2017 Go...



Korrika 2017 Astigarragan



Korrika 2017 Hernanin



Mikro Korrika 2017



Korrika Txikia 2017




Dino Korrika 2017

Azken bideoak



Azkeneko bideoak, web orrian




Azkeneko bideoak, web orrian




Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Patxi Zabaletaren hitzaldia, herritarren ...



Patxi Zabaletaren hitzaldia, herritarren ...

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



Legezko oharra